

Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %8 egin zuen behera abenduan, 2017. urteko hil berean izandakoaren aldean, arlo guztietan izan zen jaitsieraren ondorioz: %9 eraikitzen, %2 industrian eta gainerako sektoreetan, hala nola energiarenean.

2018. urtean elektrizitatearen kontsumoak %0,9 egin zuen gora, 2017. urtekoarekin konparatuta; etxeko sektorean %0,5 igo zen eta zerbitzu arloan eta industrian %1.

Urteko kontsumoan, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauexek izan dira: kautxuzko eratorriak (%8,7), burdinazkoa ez den metalurgia (%6,1), kimika (%4,6) eta eraikuntza sektorea (%4,2). Behera egin duten sektoreen artean, nabarmentzekoa da ontzizintza (%41,4), eraldaketa metalikoak (%0,5), siderurgia/galdagintza (%0,4) eta zementua (%0,2).

Gas naturala

2018ko abenduan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %2,8 egin zuen behera, 2017koarekin erkatuta. Zentral termikoena %46 igo zen eta gainerako sektoreena, berriz, %9 jaitsi zen.

Oro har, 2018. urtean, gas naturalaren kontsumoak %3,4 egin zuen behera, (-%37 CCTT-n eta +%3,1 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

2018ko abenduan, EAEn, garraioan erregaien kontsumoa %1,8 igo zen, 2017. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta.

2018ko erregaien guztizko kontsumoa %3,2 igo zen, 2017koarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %5,6 egin zuen gora eta A gasolioarenak %3.

Iturriak: EEEren lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Nazioarteko egoera



Nazioarteko egoera

Petroliaren kontsumoa munduan

2018ko abenduan, munduan petroliaren kontsumoa egunean 101,6 milioi kupel izan zen (2017ko abenduan izandakoaren aldean, %2,3 igo zen). Epe berean, Europar Batasunean %0,9 egin zuen behera kontsumoak, 14 Mbpd kantitatara iritsiz; Txinan, ordea, %11 igo zen, eta 14,5 Mbpd kontsumitzera heldu zen eta AEBetan %0,4 igo zen, eta 20,4 Mbpd kopuruan kokatu zen.

Munduan, azken 12 hilabetearen hilaren batez bestekoa, 2018. urte osoa dena, 100 Mbpd ingurukoa izan zen.







Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, orokorrean, 2018ko azaroan, 160 bcm (milaka milioi m³) inguru kontsumitu ziren. Hil horretara arte metatutako kontsumoak %4,1 egin zuen gora, 2017. urtean izandakoaren aldean, azken 12 hilabetearen hilaren batez bestekoa 147 bcm-koa izan zen.

OCDEko alde geografikoen arabera, aldaketa, aurreko urtekoarekin erkatuta, 2018ko azarora arte metatutako kontsumoaz, gorabeheratsua izan zen; izan ere, Amerika aldean, nabarmen igo zen, %8,3; Asia-Ozeanian, igoera neurritsua izan zen, %2,5, eta Europan, ordea, %3 jaitzi zen.

Iturriak: AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.

Energiaren kontsumoa Espanian



Energiaren kontsumoa Espanian

Energia elektrikoa

Espanian, elektrizitatearen kontsumoak %4,6 egin zuen behera abenduan, 2017ko hil horretan izandakoarekin konparatuta. 2018. urteari zegokion eskaria 249 TWh-koa izan zen, ia 2017an izandako bera.

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2018. urtean berriztagarrien partaidetza %40 izan zen (eolikoarena %20 eta hidroelektrikoarena %14); 2017an izandakoaren aldean, %34 handiagoa. Gainerako sorkuntza era honetan bete edo ase zen: nuklearra %22, ikatza %14, baterako sorkuntza %12 eta ziklo konbinatuak %11.

Gas naturala

2018ko abenduan, Espanian, gas naturalaren gutziko kontsumoak %6,4 egin zuen behera, 2017koarekin konparatuta. Zentral termikoetan %7 jaitsi zen eta gainerako sektoreetan %6.

2018. urtean metatutako gutziko kontsumoak pixka bat behera egin zuen, %0,4, bi joera sektorial ezberdinekin (zentral termikoetan %18,4 jaitsi zen, 2. seihilekoan izandako etengabeko jaitzieren ondorioz eta %4,5 igo zen, ordea, gainerako sektoreen kontsumo konbentzionalen).






Erregaiak garraioan

Espanian, errepideko garraioaren erregaien kontsumoak goranzko joera du 2014. urteaz geroztik. Izan ere, ordutik %13 egin du gora, 2018. urtean izandako hazkundera %2,4 izan zen.

Erregai motaren arabera, azken sei hilabetean, gasolinaren kontsumoaren igoera nabarmentzen da, %6,6, urteko hilaren batez bestekoa, eta A gasolioarena %1,6.

Iturriak: REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioak

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 56\$ (50 €) izan zen abenduan, urrian izandako igoera handiaren ondoren (80\$). 2018an %12 jaitsi zen. Urteko batez besteko prezioa %31 igo zen 2018. urtean, aurreko urtekoaren aldean.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, prezioa 62 €/MWh izan zen abenduan; Urteko batez bestekoa 57 €/MWh zelarik 2018an, aurreko urtekoarekin erkatuta, %10 igo zen.

Gas naturalaren prezioa

Holandako TTF delakoa, erreferentziatzko batez besteko prezioa europar merkatuan, 23,8 €/MWh ingurukoa izan zen abenduan; Espainian, MIBGASena 25,3 €/MWh-koa izan zen. Aurreko urtekoaren aldean, European, nabarmen egin zuten gora urteko gas naturalaren batez besteko prezioek 2018an (TTFena %31). Nazioarteko merkatuetan, abenduan, Henry Hub deritzona, ia 14 €/MWh-ra iritsi zen, eta Japonian 32 €/MWh-ra (urteko batez besteko prezioa %43 igo zen).







Erregaien prezioa

EAEn, abenduan, gasolioaren eta gasolinaren prezioak jaitsiera esanguratsuak izan zituzten, eta 1,14 €/l eta 1,19 €/l izan zen, hurrenez hurren, urtebete lehenago izandakoen antzekoak.

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren europar baimenaren prezioa hirukoiztu da azken 12 hilabeteetan, 22 €/t izan zen abenduan.

Iturriak: EIA, OMIE, Powernext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espainia

Espanian, sorkuntza elektrikoaren, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs urte hezea).

Urteko batez besteko ekoizpen nuklearra %20 da oraingo egoeran: gainerako sorkuntza era honetan ekoizten da: berriztagarriak (%40) eta erregai fosilak (%40), ikatzaren (%14) eta gas naturalaren (%20) artean banatuta, azken honen barruan ziklo konbinatuak eta baterako sorkuntza sartzen dira.

Frantzia

Sorkuntza elektrikoaren egitura Frantzian, funtsean, energia nuklearrean oinarritzen da (%70); berriztagarrien ekarpenak (%21) gora egin du, gehienbat erregai fosilen (%9) bidezko ekoizpen elektrikoaren kaltetan gertatzen dena.

Alemania

Berriztagarrien ekarpena sorkuntza elektrikoan, ezari-ezarian, Alemanian, handituz doa (%38), erregai fosilen bidezko sorkuntzaren kalterako; nuklearren partaidetzak bere horretan jarraitzen du (%12).

Erregai fosiletan, azpimarratzekoa da ikatzaren (%36) eta, maila apalagoan bada ere, gasa naturalaren (%12) partaidetza sorkuntza elektrikoan.

Iturriak: AIE-ren datuetan oinarrituta.